

## **-KO ATZIZKIA EUSKARAZ**

R.L. Trask

Sub-Department of Linguistics  
University of Liverpool  
Liverpool L69 3BX  
Inglaterra

### **1. Sarrera.**

Euskal *-ko* atzizkia, hizkuntzaren atzizki importanteenetarik bat izan arren, ez da inoiz osorik deskribatua izan. Gramatika-liburu gehienetan, *etxe-ko andrea* bezalako konstrukzioak aurkezten dira, eta zenbaitetan, *mendirako bidea* bezalakoak ere bai, baina atzizkiaz beraz oso gutxi esan ohi da.

Izan ere, euskal gramatika-liburu zaharretan, *-ko* atzizkia ez da bat ere aipatzen; hau da egoera Larramendi-renean (1729) eta Añibarro-renean (1969; ca. 1820.ean idatzia). Hasi Louis Gèze-renetik (1873), haatik, eta gaurkoetaraino, atzizki hau ia beti aurkezten zaigu lehenengo orrialdeetan, baina lerro erdi batetan normalean, eta ematen den deskribapena ia beti hau da:

- (a) *-ko* kasu-atzizkia dela;
- (b) genitibo mota bat dela;
- (d) izenei eransten zaiela (hau da, izen sintagmei);
- (e) bizidun izen sintagmei ezin zaiela erantsi;
- (f) lekuzko esannahia duela.

Hemen defendituko dudan interpretazioa zeharo desberdina da: esplikatuko dudan legez, *-ko* atzizkia ez da genitibo bat, eztaere edonolako kasu-atzizkia; ez zaie inoiz izen-sintagmei eransten; bizidun eta bizigabeen arteko desberdintasunik ez dago; eta atzizki honek ez du edonolako esannahirik.

### **2. Zenbait gramatikalariren interpretazioak.**

Gramatika-liburu bat baino gehiagotan, *zurezko makila* eta *mendirako bidea* bezalako sintagmak aurkezten dira, eta askotan honelako zerbait esaten

da: «-ko atzizkia, kasu-atzizkidun izen sintagmei eransten ahal zaie». Atzizki hau kasu-atzizkitzat ere hartzen denez gero, zerbait harrigarri dugu hemen, dirudenez: bi kasu-atzizki elkarrekin, edo, Aita Lafittek esaten duen legez, «birdeklinaketa» (Lafitte 1944).

Birdeklinaketa teoria hau Azkuek berak onartzen zuen, *Morfología Vasca* bere liburuan (1923-25), baina Azkuek zerbait kurios aipatzen du: -ko atzizkia edozein kasu-atzizkiri jarraiki ahal zaiola, ergatiboa, datiboa eta inesiboari ezik. Baina ergatiboa, datiboa eta inesiboa ez dira inolako klase naturala, eta gainera, harrigarria da, -ko atzizkia inesiboari ezin zaiola erantsi, bada beste lekuzko kasuekin oso ondo doa -ko hori *mendirako*, *etxeetatiko*, eta abar. Hala ta guztiz ere, inor gutxik galdetu du zergatik dabilen atzizkia honelako era batetan.

Izan ere, lehenengo pausoa Pierre Lhandek egin zuen, bere hiztegi ezagunean (1926). Han analisatu zuen *buruko* hitza, ez *buru* plus -ko bezala, baizik eta *buruan* plus -ko bezala. Interpretazio zorrotz honek, haatik, eragin gutxi izan du euskalarion artean.

Sebero Altubek ere ikertzen zuen gure atzizkia *Erderismus* bere liburuan (1929); analisirik ez zigun eman, baina etsenplu interesgarri batzu aurkeztu zizkigun: *ume lotsa-galduko hori*, *osasu ederreko mutila*, *aurpegi zorrotzeko gizona*, *bihotz biguneko andre hura*, *hiru urteko umea*, *hartz biko haitzurra*, etab. Altuberen etsenpluak geroago ikertuko ditugu berriz.

Ernst Lewyk ere ez digu ematen analisirik bere entseian (1931), baina -ko atzizkia ikusten du Lewyk zenbait forma desberdinetan: *zertako*, *ene emaztearendako*, *emaiteko*, *meza hasi zeneko*, eta baita *ikusiko dut*. *Ikusiko* forma ezik, hau aurrerapasoa zen.

Rene Lafonen ikuspuntua desberdina zen (Lafon 1965). Gure -ko atzizkia genitibotzat kontsideratzen zuen Lafonek, eta bere gaia hau zen: -ko eta -en genitiboen arteko bereiztasuna identifikatzea. Desberdintasun hau ikusten du *semantika* aldetik; esaten du: «Les formes en -ko ont donc une valeur plus concrète que le premier génitif [-en]; le deuxième génitif [-ko], comme le premier, détermine; mais il le fait avec plus de précision; il qualifie en classant; il définit une classe qui n'appartient pas au monde des êtres animés. Il exprime un caractère distinctif, une qualité.» Esaten ere du Lafonek: «Le suffixe -ko est donc bien un suffixe de dérivation» —puntu interesgarria, geroago ikusiko dugun legez. Baina, Lafonen deskribapena ez da oraindik osoa: ez du esplikatzen zergatik doan -ko atzizkia bai zenbait atzizkirekin, ez besterekin; ez du esplikatzen zergatik doan -ko atzizkia edozein kasu-atzizkirekin; eta ez du esplikatzen zergatik ez doan -ko atzizkia bizidun sintagmekin.

Pierre Lafittek, bere liburu ezagunean (Lafitte 1944), *hiriko* hitza *hirian* eta -ko bi zatietan banatzen du, baina liburu honetan ere ematen da atzizkia kasu-atzizkien zerrendan.

Hurrengo ikerketa, Koldo Mitxelenarena da (Mitxelena 1972a, 1972b),

eta Mitxelenaren lanetan, Lhande eta Lafitte-renetan bezala, analisi sintaktikoa aurkitzen dugu. Esaten du Mitxelenak: «Lo que subyace a *mendi-ko* 'del monte' no es *mendia* + *-ko*, o sea, tema en inesivo determinado + sufijo. En otras palabras, *\*mendiango* se realiza en la superficie como *mendiko*.» Izan ere, euskal literatura zaharrean, Mitxelenak esplikatzeko digu, *barruangoak* bezalako formak aurkitzen direla; gaurko euskaraz, *barrukoak* esan beharko genuke. Mitxelenaren proposamendu hau diakronikoa da, baina oso ondo ulertu ahal dugu sinkronikoki ere.

Mitxelenaren interpretazioak, *-ko* atzizkiaren ibileraren bi aspektu argitzen dizkigu:

(1) Esplikatu egiten du, zergatik ez dugun aurkitzen *-ko* atzizkia inesiboekin loturik.

(2) Esplikatu egiten du, nondik datorren *-ko* atzizkiaren lekuzko esannahia: ez atzizkitik bertatik, baizik eta azpiko inesibotik.

Baina Mitxelenaren analisiak hirugarren abantaila bat du. Kontsidera itzazu ondoko sintagmak:

(a) *semearen etxea* (ondo)

(b) *etxeko semea* (ondo)

(d) *?etxearen semea* (ondo, baina ezinezkoa interpretatzeko gure munduan)

(e) *\*semeko etxea* (txarto)

Zergatik dago txarto *\*semeko etxea* hori? Lafonen analisisian, bi hautapen ditugu. Esan ahal dugu *-ko* atzizkia, zeharo nahierara eta arrazoi barik, ezin zaiela erantsi bizidun sintagmei. Bestela, esan ahal dugu, *\*semeko etxea* benetan *etxearen semea* horren kidea dela —hau da, *\*semeko etxea* ondo dagoela, gramatika aldetik, baina ezinezkoa interpretatzeko. Lehenengoa hautatzea, esplikaziorik ez dagoela esatea da. Bigarrena ez da hobea; *\*semeko etxea* bezalako sintagma asko daude, denak ondo eginak, semantika aldetik, eta denak ez-gramatikalak: *\*semeko tristura*, *\*gatuako arkakusoak*, *\*gizoneko itxaropena*, etab.

Baina Mitxelenaren proposamenduak aurrerako bidea erakusten digu: bizidun izen sintagmek ez dute inesibo sinplerik; horregatik, ez dute *-ko* sintagma sinplerik. Hau da, *semea* izen sintagmak ez du *\*semean* inesiborik egiten, beraz, *\*semean* + *-ko* ez da posiblea, eta *\*semeko etxea* bezalakorik ez dago.

*Semea* sintagmak ba du inesiboa, noski; *semea baitan* edo *semeagan* da forma. Eta forma honetatik, eta antzeko formatatik, *-ko* sintagmak eraiki ahal izan beharko genituzke. Eta batzutan, behintzat, posiblea da: *ni baitango malakoak* eta antzekoak entzuten dira, zenbait tokitan gutxienez. Baina, esan behar da, *\*semeagango tristura*, *\*gatuagango arkakusoak* eta antzekoak ez direla esaten —ez dakit zergatik.

Oro har, ordea, Mitxelenaren interpretazioak hirugarren aspektu bat adierazten digu klarki, hots:

(3) Esplikatu egiten du, bizidun izen sintagmetatik zergatik ez den erakitzen *-ko* sintagma sinplerik.

Horregatik, Mitxelenaren proposamendu simple ta dotore honek automatikoki esplikatzen dizkigu *-ko* atzizkiaren hiru aspektu, lehenago misterioso samarrak baitziren. Baina, ez du dena esplikatzen. Mitxelenak ez digu esaten zergatik ezin zaien erantsi atzizki hau ergatiboei edo datiboei; eta ez digu esaten edozer gauzari zergatik erantsi ahal zaion. Hau da, *-ko* atzizkiaren barneko natura ez du ikertzen, eztaere atzizkiaren funtzioa euskal gramatikaren osotasunean. Gainera, ez da esplikatzen saiatzen, lekuzko zentzu hori zergatik ez dagoen zenbait sintagmatan, hots, *osasun ederreko mutila* edo *hortz biko haitzurra*, bi adibide emateko.

Gure atzizkia Terence Wilbur-ek ikertzen du bere liburuan (Wilbur 1979), eta Wilbur-ek interpretazio bat eskeintzen digu. Horren ustez, *-ko* ez da genitibo, eztaere edonolako kasu-atzizkia, baizik eta «izen sintagmaren konplementatzailea», eta erlatibozko esaldiei erantzen zaie. Beraz, *ateko giltza* sintagma, Wilbur-ek *atean dagoen giltza* sintagmatik eratortzen du. Wilbur-en interpretazioan, orduan, *-ko* atzizkia lekuzko izen sintagmei erantzen zaie —nahiko interpretazio tradizionala, ikuspuntu batzutatik, eta onartezina, ikusiko dugun bezala, baina puntu on bat du analisi honek —hots, sintaktikoa dela. Euskal gramatika osoan nola dabilen atzizki hau erakusten saiatzen da Wilbur; hau da horren kontribuzio garrantzitsuena, nahiz eta analisisia bera aldaratu behar den.

Azkenean, *-ko* atzizkiaren ikertza berriena, Patxi Goenagarena da. Goenagak, bere liburuan (Goenaga 1978-80), eta baita artikulu berriago batetan, gure gaiaren bihotzera ikusten du. Hau esaten du Goenagak: «—*Ko* atzizki honek izenlagunak osatzen ditu. Baina oraingoan atzizki hau ez zaio zuzenean izen sintagmari erasten, adizlagunari baizik» (1980, 133. orr.).

Goenagaren kontribuzioa, *-ko* atzizkia *adizlagunei* erantzen zaiela, aurre-rapaso inportanteena da gure historian. Mende bat baino gehiago behar izan dugu euskalariok asmo simple hau ikusteko. Orain, haatik, atzizkiaren ibilera bi perpausetan laburtu ahal da:

- (1) *-ko* atzizkia adizlagunei erantzen zaie eta izenlagunak eratortzen ditu;
- (2) *-ko* atzizkia eransterakoan, zenbait aldaketa morfofonologikoak gertatzen dira; batez ere, inesibo ta komitatiboaren azken *-n* erortzen da.

Orain ikusiko dugun legez, analisi simple honek euskal *-ko* atzizkiaren ibilera ia osoki esplikatu ahal du —ia, baina ez zeharo.

### 3. Adizlagunak eta -ko Atzizkia.

Orain, iker ditzagun *-ko* atzizkia hartzen duten adizlagunen motak:

(a) Adberbio lexikalak: *hemen* → *hemengoak*

*atzo* → *atzoko egunkaria*

*gero* → *geroko gertaerak*

*berehala* → *berehalako erantzuna*

(b) Adberbio konposatuak: *nahitanahiez* → *nahitanahiezkero erabakiak*

*hitzez hitz* → *hitzez hitzeko itzulpena*

*zirt-edo-zart* → *zirt-edo-zarteko gizona*

(d) Kasu-atzizkidun izen

sintagma adberbialak: *mahaian* → *mahaiko loreak*

*mendietan* → *mendietako etxeak*

*ni baitan* → *ni baitango malkoak*

*gizonekin* → *gizonekiko neska*

*mendirira* → *mendirako bidea*

(e) *-ero* atzizkidunak: *egunero* → *eguneroko janariak*

*urtero* → *urteroko gertaerak*

(f) Pospozizio sintagmak: *linguistikari buruz* →

*linguistikari buruzko liburua*

*gerra ondoan* → *gerra ondoko egoera*

*zu bezala* → *zu bezalako neska bat*

*lotsa gabe* → *lotsa gabeko ume hori*

(g) Partizipio adberbialak: *erosita* → *erositako liburua*

*esanik* → *hark esaniko etxea*

(h) Nola adberbioak: *nola?* → *nolako gizona?*

*zelan?* → *zelako etxea?*

*honela* → *honelako liburua*

(i) Denborazko esaldiak: *izarra agertu zitzaizenean* →

*izarra agertu zitzaizeneko garaian*

Ikusten den legez, adberbio mota gehienek hartu ahal dute *-ko* atzizkia. Baina, ba daude adizlagunen zenbait mota, *-ko* atzizkia onartu ezin dutenak:

- (j) Adjetiboetatik eratorritakoak: *eder* → *ederki* → \**ederkiko*  
*txar* → *txarto* → \**txartoko*  
*polit* → *poliki* → \**polikiko*

Haatik, zer esan nahi izan ahalko luke \**ederkiko* hitz horrek? *Eder*, agian, baina hitz hori ba dugu jadanik. Zergatik itsatsi bi atzizki, funtzio barik? Ez dugu sakonki ikertu beharrik, \**ederkiko* eta horren bezalakoak zergatik ez dauden aurkitzeko.

- (k) *-ka* atzizkiaz eratorritakoak: *zaldika* → \**zaldikako gizona*  
*eztulka* → \**eztulkako umea*  
*deika* → \**deikako jendetza*

Hemen dugu problema. Zergatik ez \**zaldikako gizona*? Edo \**eztulkako umea*? Semantika aldetik, oso ondo eginda iruditzen zaizkit hauek —baina ezinezkoak dira. Ez dakit zergatik. Zenbait kasutan, ordea, horrelako konstrukzioak posibleak dira: Beñat Oyharçabalek zera esan dit, iparraldean *eskuhuts-kako pilota partida* oso forma normala dela, eta Patxi Altunak esan dit *presakako* forma entzun duela beste norbaiten hizketan. Forma hauek, beraz, ez dira zeharo ezinak: noizbehinka, behintzat, entzuten dira, hemen ematen dudana proposamenduak behartzen duen legez. Horregatik, \**zaldikako* formaren ezintasuna ez da oztopo handia, eta problema hau baztertu ahal dugu oraingo.

- (l) *-ik* atzizkiaz eratorritakoak: *bakarrik* → \**bakarrikeko neska*  
*isilik* → \**isilikeko gizona*  
*pozik* → \**pozikeko umeak*

Ez dago problemarik hemen. Zergatik beharko genuke \**isilikeko umea*, *ume isila* dugunean?

- (m) Denborazko ez diren *ikus* *dudan baino lehen* →  
 esaldi adberbialak: \**ikus* *dudan baino lehengo gizona*  
*prest ez dagoelako* →  
 \**prest ez dagoelako-ko afaria*  
*gurasoak ikustera* →  
 \**gurasoak ikusterako neska*

Hemen ere problemarik ez dago: \**prest ez dagoelako(ko) afaria* eta beste guztiak zeharo inkoherenteak dira, semantika aldetik.

Oro har, horregatik, problema gutxi dugu ez dauden forma hauekin. Esan-nahiak uzten digunetan, ia edozein adizlaguni erantsi ahal diogu.

#### 4. Altuberen etsenpluak eta proposamendu berri bat.

Ezbeharrez, beste problema bat dugu *-ko* atzizkiarekin, eta hau ere Patxi Goenagak ikusi du (Goenaga 1981). Kotsidera itzazu honako formak, gehienak Altuberen liburutik hartuta:

*osasun ederreko mutila*  
*beso ederreko pilotaria*  
*hortz biko haitzurra*  
*hiru urteko umea*  
*hamabi urteko whiskia*

Hauek eta antzeko adibideak problema bat dira. Horrelakoak nola ulertu beharko genituzke?

*beso ederreko pilotaria ez da \*beso ederrean dagoen pilotaria*  
*hiru urteko umea ez da \*hiru urtetan dagoen umea*

Hauetan, lekuzko esannahia falta da. Zer gertatzen da hemen?

Nere ustez, hauek ulertzeko giltza *forma* da. Ikus: *hiru urteko umea* da forma, eta ez *\*hiru urtetako umea*. Baina goian ikertu ditugun formen ibilera desberdina da: *hiru herritatik pasatzen den laisterketa* adierazteko, *hiru herritako laisterketa* esaten da, eta ez *\*hiru herriko laisterketa*. Iruditzen da, beraz, *-ko* atzizkia hartzen duena ez dela izen sintagma mugagabe bat, ezta ere adizlagun bat, baizik eta beste zerbait. Eta hau zer da? Nere ustez, argi dago: *izen multzoa* da. Izen multzoa (ingelesez: N-bar) deitzen zaio kategoria sintaktiko bati, izena baino handiagoa baina izen sintagma baino txikiagoa baita. Adibidez, *osasun ederra* izen sintagmaren barneko egitura hau da:

[IS[IM[<sub>i</sub>osasun] [Adj<sup>eder</sup>(r)]] [Mug<sup>-a</sup>]]

Hemen IS = izen sintagma (*osasun ederra*), IM = izen multzoa (*osasun eder*), I = izena (*osasun*), Adj = adjetiboa (*eder*), eta Mug = mugatzailea (*-a*).

Normalean, goian ikusi dugun legez, gure *-ko* atzizkiak *adizlaguna* eskatzen du. Baina *osasun ederreko mutila* sintagman eta antzekoetan, atzizkiak *izen multzoa* behar du. Beste hitzez, *bi konstrukzio desberdin* ditugu euskarari: lehenengoa, adizlaguna plus *-ko*; bigarrena, izen multzoa plus *-ko*. Lehena zeharo produktiboa da: *zeinnahi* adizlagunek *-ko* atzizkia hartu ahal du, semantikak uzten baldin badu; bigarrena, ostera, ez da zeharo produktiboa: *beso ederreko pilotaria* bai, baina *\*beso luzeko pilotaria ez*; *osasun ederreko mutila* bai, baina *\*ama ederreko mutila ez*; *bihotz biguneko andrea* bai, baina *\*begi urdineko andrea ez*. Zelako konstrukzio da bigarren hau? Argi dago: *deribazionala* da. Hau da, bigarren konstrukzio honetan, *-ko* atzizkia deribazionala

da, beste atzizki asko bezalaxe: *-dun, -tsu, -kor, -koi*, etab. Aldera *-dun* atzizkia: honek ere izen multzoa eskatzen du. Beraz, *gona gorridun neska* bai, baina *\*gona gorriadun neska* ez, *\*gona gorriakdun neskak* ez, *\*gona gorri haurdun neska* ez, etab. Gainera, atzizki hau ez da zeharo produktiboa: *gona gorridun neska* bai, baina *\*osasun ederdun neska* ez; *kotxe berridun neska* bai, baina *\*ikuspuntu berridun neska* ez. Ibilera hau nahikoa tipikoa da hizki deribazionalekin.

Azkenean, zer dugu? Bi konstrukzio, ziurki; bi ibilera, bai; eta, orain airtortu behar dut, *bi atzizki*. Altuberen etsenpluetan ikusten dugun ibilera, eta *mendiko bidea* eta antzekoetan ikusten dugun hori, *zeharo desberdinak* dira. Horregatik, eman behar dugun analisiak *bi atzizki desberdin* ezagutzera behartzen gaitu.

### 5. Ondorioak.

- (1) Euskarán, *-ko* forma duten *bi atzizki* daude.
- (2) Lehena, atzizki sintaktikoa da; ez du esannahirik; adizlagunei erantzen zaie, eta izenlagunak erartortzen ditu.
- (3) Bigarrena, atzizki deribazionala da; ba du esannahia, ahul eta aldakorra izan arren; izen multzoei erantzen zaie, eta izenlagunak erartortzen ditu.
- (4) Euskarán, horregatik, *-ko* forma duen kasu atzizkirik *ez dago!*

Eskerrak ematen dizkiet lagun hauei: Patxi Altuna, Ana Azula, Esther Barrutia, Patxi Goenaga, Alfonso Irigoien, Alan King, Koldo Mitxelena, Beñat Oyarçabal, eta Georges Rebuschiri. Denongandik laguntza hartu dut, eta denoi eskerrak eskeintzen dizkiet. Dauden okerrak nereak, dira, noski.



## BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, Sebero (1929), *Erderismos, Euskera* aldizkarian; bigarren edizioa 1975, Bilbo.
- AÑIBARRO, Pedro de (1969; ca. 1820.ean idatzia), *Gramática Bascongada*, Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», San Sebastián.
- AZKUE, Resurrección María de (1923-25), *Morfología Vasca, Euskera* aldizkarian; bigarren edizioa 1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- GÈZE, Louis (1873), *Éléments de grammaire basque*, Bayonne.
- GOENAGA, Patxi (1981), «Ohizko euskal sintaxia eta sintaxi berria», *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak* liburuan, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- LAFITTE, Pierre (1944), *Grammaire basque: Navarroy-labourdin littéraire*; hirugarren edizioa 1979, Elkar, Donostia.
- LAFON, René (1965), «Les deux génitifs en basque», *Bulletin de la Société Linguistique* 60, 131-159 orr.
- LARRAMENDI, Manuel de (1729), *El imposible vencido: Arte de la lengua vascongada*, Antonio Joseph Villergordo Alecráz, Salamanca.
- LEWY, Ernst (1931), «Skizze einer elementaren Syntax des Baskischen»; berriargitaratua 1961, Ernst Lewy, *Kleine Schriften* liburuan, Akademie-Verlag, Berlin, 530-562-orr.
- LHANDE, Pierre (1926), *Dictionnaire Basque-Français*, Gabriel Beauchesne, Paris.
- MITXELENA, Koldo (1972a), «Etimología y transformación», *Homenaje a Antonio Tovar* liburuan, Gredos, Madrid, 305-317 orr.
- MITXELENA, Koldo (1972b), *Zenbait hitzaldi*, ETOR, Bilbo.
- WILBUR, Terence (1979), *Prolegomena to a Grammar of Basque*, John Benjamins B.V., Amsterdam.